



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: AKORDEOIA 2019ko MARTXOAREN 16a

2019ko MARTXOAREN 16an Musikenek Ate Irekien jardunaldia egingo du **akordeoi** espezialitatean. Bertan Iñaki Alberdi, Aitor Furundarena eta Miren Iñarga irakasleek parte hartuko dute, Musikeneko **akordeoi** ikasleez gain.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten akordeoi ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten akordeoi ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da **izen-emate orriaren** bitartez

Zein da jardunaldiaren helburua?

- Musikenen ikasleekin egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta datozen irakasleei goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta erreperitorio egokiari buruz informazioa luzatzea,.
- Sarrera probei begira ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Lan-egitasmoa

10.30-11.30: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Akordeoi espezialitatearen ikasketa-planari buruzko hitzaldi informatiboa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera probei buruzko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

11.30-14.00: Iñaki Alberdi irakaslearekin eskolak Musikeneko ikasleekin eta jardunaldi hauetan ikasle aktibo modura izena eman dutenekin.

15.30-17.00: Iñaki Alberdi irakaslearekin eskolak Musikeneko ikasleekin eta jardunaldi hauetan ikasle aktibo modura izena eman dutenekin.

17.30: Musikeneko akordeoi ikasleen emanaldia

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia jperez@musikene.eus

